GETXO ARTE 2016

SALÓN DE PRÁCTICAS CONTEMPORÁNEAS

PRAKTIKA GARAIKIDEEN ARETOA

# OINA-RRIAK/ BASES

DEIALDIAREN OINARRIAK
PROGRAMA OROKORRA /
**PROJECTS SOILIK**

BASES CONVOCATORIA
PROGRAMA GENERAL /
**SOLO PROJECTS**

ANTOLATZAILEAK ORGANIZADORES

Getxo bizi ezazu
Getxo KULTUR ETXEA bizi ezazu

BABESLEAK PATROCINADORES

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia
bbk
EL CORREO

# DEIALDIAREN OINARRIAK

## PROGRAMA OROKORRA / PROJECTS SOILIK

### HELBURUAK

Getxoko Udalak, Kultur Etxearen bitartez, **GETXOARTE 2016RAKO PROGRAMA OROKORRAREN** deialdia egin du, artea eta praktika garaikideak edozein adierazpenetan bultzatzeko, hedatzeko eta sustatzeko asmoarekin. 30 proposamen hautatuko dira, eta 2016ko azaroaren 4tik 6ra arte Getxoko Areetako Geltoki plazan jarritako karpan erakutsiko dira.

**PROGRAMA OROKORRA** ez da soilik erakusketa-programa bat; horren helburua da lehen urratsetan hautatutako artistak gidatzeko, laguntzeko eta aholkatzeko euskarri izatea. Horretarako, dosierra prestatu eta aurkezten den unetik aurrera, proiektua hautatu, produzitu eta erakusketan jarri bitarte, artistek akonpainamendu eta mentorizazio prozesuan hartuko dute parte. Harik eta emaitzak erakutsi bitarte, lan-prozesua berez ikaskuntzaren zati izatea nahi da. Artistek beren piezak baldintza profesionaletan erakutsiko dituzte, sortze-prozesuaren inguruko hausnarketa egingo dute, eta bitartekaritza bideak eta agenteak, publikoa, merkatuak, e.a. izatea aztertuko dute.

GETXOARTE 2016an parte hartzeko OINARRIAK hauek izango dira:

### HARTZAILEAK

**a) PROGRAMA OROKORRA** artistaren profil honentzat egin da: merkataritza ordezkaritza duena ala ez, karrera profesionalaren hasieran aurkitzen dena.

**b) Tokiko hartzaileak:** modalitate honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-egoitza duten 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek. Horien artean, kalitatezko erakusketa-proiektura egokitzen diren % 80 proposamen artistiko hautatuko dira.

**c) Estatuko hartzaileak:** modalitate honetan parte hartu ahal izango dute Estatuan administrazio-egoitza duten 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek. Horien artean kalitatezko erakusketa-proiektura egokitzen diren % 20 proposamen artistiko hautatuko dira.

### PRESTAZIOAK

GETXOARTE 2016ko erakusketak 8 metro karratuko (4x2m) eta 2,40 metroko altuerako STANDa eskainiko dio doan partehartzaile bakoitzari, argi, instalazio elektriko eta seinaleztapen eta guzti.

Antolakuntzak ezarritako egunetan lanak garraiatu, instalatu eta jaso beharko dituzte egileek; horretarako, 95 euroko garraiolaguntza izango du stand bakoitzeko tokiko artista bakoitzak eta 150 euroko laguntza stand bakoitzeko estatuko artistek ostatu eta garraio izenean.

GETXOARTE 2016eko edizioak katalogoa argitaratuko du programa guztiekin, PROGRAMA OROKORRA barne. Inprimatzeko nahiz euskarri digitalerako prestatuko da parte hartzen duten artistekin, eta ahalik eta gehien hedatzea bultzatuko da.

### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

PROGRAMA OROKORRAren barnean, artisten lana banaka aurkeztuko da (banakoa izango da baita ere taldeko proiektu baten emaitza), erakusketa-proposamenaren formatuan. DOSIER FISIKOA aurkeztuko da DIN-A4 tamainan, eta ordena honetan agertuko dira ondorengoak:

**DOSIER FISIKOA:**

- Proiektuaren izenburua
- Artista / taldea / bikote artistikoaren izena
- Izena emateko inprimakia beteta
- Artistaren statement-a, gehienez 10 lerro
- Artistaren curriculum vitaea, gehienez 10 lerroko biografiarekin batera
- NAN edo errolda-ziurtagiria edo administrazio-egoitza egiaztatzen duen agiria
- Proiektuaren justifikazioa / azalpena gehienez 30 lerrotan
- Erakusketa-garapenaren deskribapena (irudiak, planoak, e.a.)
- Koloretako bost argazki, kalitate onekoak, fitxa teknikoarekin (titulua, urtea, erabilitako teknika eta benetako neurriak) aurkeztutako proiektuarekin zerikusia dutenak

**CD GEHITUA (dosierrari erantsia):**

- Dosier osoa PDF eta Word formatuan
- CV eta biografiaWord formatuan
- Statement-a Word formatuan
- 5 argazki .jpg formatuan (gutxienez 300 puntu hazbeteko bereizmena), aurkeztu beharreko lanekin edo lan-prozesuarekin zerikusia dutenak.
- Epaimahaiak ez du kontuan hartuko denboran eta forman egokitzen ez den edo eskatzen den osaera ez duen edozein dosier. Zuzendaritzak informazio osagarria edo proposamenaren gaineko zehaztasunak eskatzeko eskubidea izango du.

### AURKEZPENA

**GETXOKO KULTUR ETXEA**
GETXOARTE 2016- Praktika Garaikideen Aretoa
Villamonte A-8 bajo 48991 GETXO
Tel.: 94 491 40 80
E-posta: getxoarte@getxo.eus
www.getxo.eus

## AURKEZTEKO EPEA

2016ko apirilaren 6tik maiatzaren 6ra arte, 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara astelehenetik ostegunera eta 08:30etik 14:30era ostiraletan. Postaz bidalitako eskaeretan, zigiluaren dataren bidez egiaztatuko da ezarritako epeen barnean aurkeztua izan dela.

## 2016KO EPAIMAHAIA

Epaimahaiak eskubidea izango du eskatzaileek emandako datuak egiaztatzeko. Epaimahaiak lana eta proiektuaren kalitatea ebaluatzeaz gain, parte-hartzaileak hautatuko ditu. Epaimahaiaren ebazpena apelaezina izango da, eta artistei ekainaren bigarren hamabostaldian jakinaraziko zaie.

**EPAIMAHAIA:**

- **Haizea Barcenilla** (arte kritikaria eta EHUko Arte Historia irakaslea)
- **Nadia Barkate** (Euskal artista)
- **Javier Martín** (Madrilgo Erkidegoko arte aholkularia)
- **Eduardo Hurtado** (artista eta Getxoarte programen zuzendaria)

## MENTORIZAZIOA

Hautapen-unetik aurrera, artista guztiak Getxoarteren zuzendaritzak burutuko duen mentorizazio-prozesuan sartuko dira. Prozesu horren bitartez, ekoizpenarekin, edukien edizioarekin eta erakusketarekin berarekin loturiko alderdi guztien gaineko zalantzak argitu eta gidatuko dira. Prozesuan lanerako bilerak egingo dira (fisikoak eta/edo online bidezkoak).

## BALDINTZAK

Antolakuntza erakusketa-barrutiak denbora horretan oro har segurtasuna izateaz arduratuko da. Antolakuntza inola ere ez da arduratuko publikoarentzat irekitako ordutegian erakusketan jarritako piezen banako segurtasunaz; horien segurtasuna egileen kontura izango da. Erakusketaren ordutegia ondorengoa izango da: ostiralean 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:30era, larunbatean 11:00etatik 22:00etara; eta igandean 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00era.

Erreprodukzio-aparatuak, bideoak, magnetoskopioak, muntatzeko materiala, e.a. artistak jarriko ditu; beraz, hori kontuan izan behar da erakusketa-proposamena egiteko garaian.

Harreman komertzialak egin ahal izango dira, baina soilik artistaren eta bezeroaren artean, antolakuntzak era batera edo bestera esku hartu gabe.

Artista GUZTIEK beren proposamenak muntatu eta desmuntatu beharko dituzte, eta aretoan fisikoki egon beharko dute. Halaber, parte hartu beharko dute HEZKUNTZA PROGRAMAN eta Getxoarten zehar hedatzeko eta komunikatzeko egingo diren proposamen ezberdinetan. Proposamen horiek hautatutako artistei azalduko zaizkie.

GETXOARTE 2016- Praktika Garaikideen Aretoan parte hartzearekin oinarriak erabat onartu direla ulertuko da. Interpretazioaren gainean zalantzaren bat gertatuz gero, Getxoko Kultur Etxearen eginkizuna izango da hori argitzea.

GETXOARTE 2016 - Praktika Garaikideen Aretoak programa honetan parte hartu duten proiektuak zabaldu ahal izango ditu egokitzat jotako komunikabideen bitartez (komunikabideak, espazio birtualak, sare sozialak, e.a.) eta dagozkion euskarrietan (testuak, argazkiak, bideoak, e.a.).

## GETXOARTE SARIA / ESKURAPENA

Getxoko Kultur Etxeak Getxoarteren 2016ko edizioan erakutsitako lan bat sarituko du kalitatea, formatua eta proiektua kontuan hartuta. Saria 2.000 eurokoa izango da (zergak barne), eta Getxoarteren Bilduman sartzeko aukera emango da. Lan hori, ezarritako hitzarmenaren arabera, Arabako Artium Bilduman gordailu gisa sartzeko proposatuko da.

Saria hutsik utzi ahal izango da epaimahaiak horrela erabakiz gero. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

**EPAIMAHAIA:**

- **Dani Castillejo** (Artiumeko Zuzendaria)
- **Jesus Alcaide** (Komisarioa eta Arte Kritikaria)
- **Eduardo Hurtado** (Getxoarteren programen zuzendaria), ahotsarekin baina botorik gabe.

# BASES DE LA CONVOCATORIA

## PROGRAMA GENERAL /SOLO PROJECTS

### OBJETIVOS

El Ayuntamiento de Getxo, a través del Aula de Cultura, hace pública la convocatoria de **PROGRAMA GENERAL** para **GETXOARTE 2016**, con el propósito de apoyar, difundir y promocionar el arte y las prácticas contemporáneas en cualquiera de sus manifestaciones. Se seleccionarán 30 propuestas, que se expondrán del 4 al 6 de Noviembre de 2016 en una carpa situada en la Plaza Estación de Las Arenas de Getxo.

**PROGRAMA GENERAL** no se trata de un programa únicamente de exhibición sino que lo que pretende es servir como soporte para guiar, acompañar y asesorar a los artistas seleccionados en sus primeros pasos. Para ello, desde el momento de preparación y presentación del dossier, pasando por la selección, la producción del proyecto hasta llegar a su exhibición, los artistas formarán parte de un proceso de acompañamiento y mentorización. La intención es que el proceso de trabajo, hasta que se enseñen los resultados, sea en sí mismo parte de un aprendizaje. Los artistas se enfrentarán al reto de mostrar sus piezas en una condiciones profesionales, reflexionar sobre su proceso de creación y plantearse la existencia de canales y agentes de mediación, la presencia de los públicos, los mercados, etc.

La participación en GETXOARTE 2016 se regirá según las siguientes BASES:

### DESTINATARIOS

**a) PROGRAMA GENERAL** está orientado a un perfil de artista, con o sin representación comercial, en proceso de inicio de su carrera profesional.

**b) Destinatarios Locales:** Podrán participar en esta modalidad todas aquellas personas físicas mayores de 18 años, con vecindad administrativa en el País Vasco, entre las cuales se seleccionarán el 80% de las propuestas artísticas, que se ajusten a un proyecto expositivo de calidad.

**c) Destinatarios Nacionales:** Podrán participar en esta modalidad todas aquellas personas físicas mayores de 18 años, con vecindad administrativa nacional, entre las cuales se seleccionarán el 20% de las propuestas artísticas, que se ajusten a un proyecto expositivo de calidad.

### PRESTACIONES

GETXOARTE 2016 ofrecerá de forma gratuita a cada participante un STAND de 8 metros cuadros (4x2 m) y 2.40 metros de altura que incluye la iluminación, instalación eléctrica y señalización.

Las obras deberán ser transportadas, instaladas y retiradas de los stands por sus autores en las fechas marcadas por la organización, para lo cual se dará una ayuda de transporte por importe de 95,00€ a cada artista local por stand y de 150,00 € para los artistas nacionales en concepto de alojamiento y transporte por stand.

GETXOARTE 2016 editará un catálogo que incluirá todos sus programas, incluido el PROGRAMA preparado tanto para la impresión como para el soporte digital con los artistas participantes y apoyará su máxima difusión.

### DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

El PROGRAMA GENERAL está dirigido a presentar el trabajo de artistas de forma individual (entendiéndose como individual también el resultado de un proyecto colectivo) en un formato de propuesta expositiva. Se deberá presentar un DOSSIER FÍSICO en tamaño DIN-A4 que incluirá, en el orden descrito:

**DOSSIER FÍSICO:**

- Título del proyecto
- Nombre del artista / colectivo / pareja artística
- Formulario de inscripción cumplimentado
- Statement del artista, máximo 10 líneas
- Currículum Vitae artístico acompañado de una BIO de máximo de 10 líneas
- DNI o certificado de empadronamiento o documento que acredite la vecindad administrativa
- Justificación / explicación del proyecto en 30 líneas máximo
- Descripción del desarrollo expositivo (imágenes, planos, etc.)
- Cinco fotografías en color de buena calidad, que guarden relación con el proyecto presentado con ficha técnica (título, año, técnica utilizada y medidas reales)

**CD ADJUNTO (y pegado al dossier):**

- El dossier completo en PDF y Word
- CV y BIO en formato Word
- Statement en formato Word
- 5 fotografías en formato .jpg (de al menos 300 ppp de resolución) que guarden relación con las obras a presentar o con el proceso de trabajo.
- Cualquier Dossier que no se ajuste en tiempo y forma, o que no incluya la formación que se requiere, no será tenido en cuenta por el jurado. La dirección se reserva el derecho de pedir información complementaria o especificaciones sobre la propuesta.

### PRESENTACIÓN

**AULA DE CULTURA DE GETXO**
GETXOARTE 2015 – Salón de Prácticas Contemporáneas
Villamonte A - 8 Bajo
48991 GETXO
Tel.: 94 491 40 80
E-mail: getxoarte@getxo.eus
www.getxo.eus

## PLAZO DE PRESENTACIÓN

Del 6 de abril al 6 de mayo de 2016 en horario de 9:00 a 14:00 y de 16:00 a 19:00 horas de lunes a jueves y 08:30 a 14:30 horas los viernes. En las solicitudes remitidas por correo será la fecha del matasellos la que testifique la presentación dentro de los plazos establecidos.

## JURADO 2016

El jurado se reserva el derecho a comprobar los datos aportados por los solicitantes. Corresponde al jurado evaluar la obra, la calidad del proyecto y seleccionar a los participantes. La resolución del jurado será inapelable y se comunicará a los artistas durante la segunda quincena del mes de junio.

**JURADO:**

- **Haizea Barcenilla** (Crítica de arte y profesora de Historia del Arte en la UPV-EHU)
- **Nadia Barkate** (Artista vasca)
- **Javier Martín** (Asesor de arte de la Comunidad de Madrid)

## MENTORIZACIÓN

A partir del momento de la selección todos los artistas se incorporarán a un proceso de mentorización que se llevará a cabo desde la dirección de Getxoarte. Este proceso servirá para guiar y resolver dudas en todos los aspectos que tengan que ver con la producción, la edición de contenidos y la propia exhibición. El proceso estará guiado con una serie de fechas de trabajo y reuniones.

## CONDICIONES

La organización velará por la seguridad general del recinto de exposición durante el transcurso del evento. En ningún caso la organización se hará responsable de la seguridad individual de las piezas expuestas en horario de apertura al público, que quedará a cargo de los autores. El horario de la exposición será el viernes de 11:00 a 14:00 y de 17:00 a 21:30 h, el sábado de 11:00 a 22:00 horas y el domingo de 11:00 a 14:00 h y de 17:00 a 20:00 horas.

Los aparatos de reproducción, material de montaje, etc., serán proporcionados por el artista. Cuestión que ha de ser tenida en cuenta a la hora de formular la propuesta expositiva.

Se autorizan relaciones comerciales, limitándose exclusivamente a artista y cliente, sin intervención alguna por parte de la organización.

TODOS los/as artistas deberán montar y desmontar sus propuestas, así como estar físicamente presentes durante el transcurso del salón. Deberán, así mismo, mostrarse colaborativos y participativos en el PROGRAMA EDUCATIVO y en las diferentes propuestas de divulgación y comunicación que tengan lugar durante Getxoarte. Estas propuestas serán explicadas a los artistas seleccionados.

La participación en GETXOARTE 2016 - Salón de las prácticas contemporáneas, supone la aceptación total de sus bases.

Cualquier duda sobre su interpretación corresponderá resolver al Aula de Cultura de Getxo.

GETXOARTE 2016 - Salón de las prácticas contemporáneas podrá difundir, mediante los medios que considere oportunos (medios de comunicación, espacios virtuales, redes sociales, etc.) y en los soportes que procedan (textos, fotografías, videos, etc.) los proyectos participantes en el presente programa.

## PREMIO / ADQUISIÓN GETXOARTE

El Aula de Cultura de Getxo premiará una de las obras expuestas durante Getxoarte 2016 en base a un criterio de calidad, formato y proyección. El premio consistirá en una dotación económica de 2.000,00 € (impuestos incluidos) y su inclusión en la Colección Getxoarte. Esta obra, según convenio establecido, será propuesta para su inclusión en calidad de depósito en la Colección Artium de Álava. El premio podrá quedar desierto si el jurado así lo estima oportuno. La decisión del jurado será inapelable.

**JURADO:**

- **Daniel Castillejo** (Director del Museo Artium)
- **Jesús Alcaide** (comisario y critico de arte)
- **Eduardo Hurtado** (Director de programas Getxoarte) - con voz, sin voto

## IZENA EMATEKO INPRIMAKIA BETETA

### DATU OROKORRAK

Izen-abizenak: ______________________________

NAN: ______________________________

Jaioterria eta jaioteguna: ______________________________

Helbidea: ______________________________

Posta-kodea: ______________ Herria: ______________

Mugikorra: ______________ E-posta: ______________

Kontu-zenbakia: ______________________________

### GEHITU BEHARREKOAK

**DOSIER FISIKOA:**

- ☐ Proiektuaren izenburua
- ☐ Artista / taldea / bikote artistikoaren izena
- ☐ Izena emateko inprimakia beteta
- ☐ Artistaren statement-a, gehienez 10 lerro
- ☐ Artistaren curriculum vitaea, gehienez 10 lerroko biografiarekin batera
- ☐ NAN edo errolda-ziurtagiria edo administrazio-egoitza egiaztatzen duen agiria
- ☐ Proiektuaren justifikazioa / azalpena gehienez 30 lerrotan
- ☐ Erakusketa-garapenaren deskribapena (irudiak, planoak, e.a.)
- ☐ Koloretako bost argazki, kalitate onekoak, fitxa teknikoarekin (titulua, urtea, erabilitako teknika eta benetako neurriak) aurkeztutako proiektuarekin zerikusia dutena.

**CD GEHITUA (dosierrari erantsia):**

- ☐ Dosier osoa PDF eta Word formatuan
- ☐ CV eta biografia Word formatuan
- ☐ Statement-a Word formatuan
- ☐ 5 argazki .jpg formatuan (gutxienez 300 puntu hazbeteko bereizmena), aurkeztu beharreko lanekin edo lan-prozesuarekin zerikusia dutenak.

### INFORMAZIO-KLAUSULA:

Norberaren datuak jasotzerakoan informaziorako eskubidea arautzen duen 15/1999 Legeko 5. artikuluaren arabera, emandako datu pertsonalak KULTURA-JARDUEREN fitxategian sartuko dira eta Getxoko Kultur Etxeak koordinatutako jarduera ezberdinetan parte-hartzea kudeatzeko erabiliko dira. Edozein unetan gauzatu ahal izango dituzu Legean datuetara sartzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko emandako eskubideak. Eskubide horiek gauzatzeko, gure bulegoetara idatzia bidal dezakezu. Informazioa publiko egitea nahi baduzu Kultur Etxera garatzen duzun jarduerarekin interesatuta zuzendutako edozein pertsona edo enpresarentzat, jarraian sinatu egin behar duzu. Behean sinatzen duenak baimena ematen dio Kultur Etxeari oinarrizko datuak (izen-abizenak eta posta elektronikoa) Kultur Etxeak egin beharreko euskarrietan agertzeko.

..........................................(e)n, 2016ko ..............................ren ......(e)(a)n      Sinadura: ______________

**GETXOKO KULTUR ETXEA / GETXOARTE 2016**

Villamonte A-8 behea - 48991 GETXO

Tel.: 94 491 40 80

E-mail: getxoarte@getxo.eus

www.getxo.eus

## FORMULARIO DE INSCRIPCIÓN CUMPLIMENTADO

### DATOS GENERALES

Nombre y apellidos: ______________________________

DNI: ______________________________

Lugar y fecha de nacimiento: ______________________________

Domicilio: ______________________________

Código Postal: ______________ Localidad: ______________________________

Móvil: ______________ E-mail: ______________________________

Número de cuenta: ______________________________

### SE ADJUNTA

**DOSSIER FÍSICO:**

- ☐ Título del proyecto
- ☐ Nombre del artista / colectivo / pareja artística
- ☐ Formulario de inscripción cumplimentado
- ☐ Statement del artista, máximo 10 líneas
- ☐ Currículum Vitae artístico acompañado de una BIO de máximo de 10 líneas
- ☐ DNI o certificado de empadronamiento o documento que acredite la vecindad administrativa
- ☐ Justificación / explicación del proyecto en 30 líneas máximo
- ☐ Descripción del desarrollo expositivo (imágenes, planos, etc.)
- ☐ Cinco fotografías en color de buena calidad, que guarden relación con el proyecto presentado con ficha técnica (título, año, técnica utilizada y medidas reales)

**CD ADJUNTO (y pegado al dossier):**

- ☐ El dossier completo en PDF y Word
- ☐ CV y BIO en formato Word
- ☐ Statement en formato Word
- ☐ 5 fotografías en formato .jpg (de al menos 300 ppp de resolución) que guarden relación con las obras a presentar o con el proceso de trabajo.

### CLAÚSULA DE INFORMACIÓN:

En cumplimiento del artículo 5 de la ley 15/1999, por el que se regula el derecho de información en la recogida de datos de carácter personal, te informamos de que los datos de carácter personal que nos facilitas serán incorporados al fichero ACTIVIDADES DE CULTURA y utilizados para gestionar tu participación en las diferentes actividades que coordina el Aula de Cultura de Getxo .En cualquier momento, puedes ejercitar los derechos de acceso, rectificación, y cancelación determinados por la citada ley. A efectos de ejercitar los derechos mencionados, puedes dirigirte por escrito a nuestras oficinas. Si además autorizas que esta información sea pública para cualquier persona o empresa que se dirija al Aula de Cultura, mostrando interés por la actividad que desarrollas, firma a continuación. El abajo firmante autoriza al Aula de Cultura para que sus datos básicos (nombre, apellidos y correo electrónico) aparezcan en los soportes a realizar por el Aula de Cultura.

En.....................................................a.........de.................................2016 Firma: ______________________________

**GETXOKO KULTUR ETXEA / GETXOARTE 2016**

Villamonte A-8 bajo - 48991 GETXO

Tel.: 94 491 40 80

E-mail: getxoarte@getxo.eus

www.getxo.eus